

Kaixo,

Mezu honi atxikita, Euskal Idazleen Elkartearen bidez iritsi zaidan inkestako hiru galderari erantzuten dien testu bat bidaltzen dizuet. Hiru galderen aurrean hartu dudan jarrera apur bat generalista izan ez ote den susmoa dut, batez ere "zergatik idazten dut?" galderaren kasuan ("zergatik idatzi ohi da?" erantzuten amaitu baitut, nik uste). Agian, hirugarren pertsonaren erabileraren moduko zerbaitengatik izan da, babes-mekanismo bat edo. Dena den, egia da ez dela inoiz bukatzen horrelako galderari erantzuten. Beti gelditzen dira ate asko irekita; areago, erantzun batek beste erantzun batzuei bidea zabal diezaieke, eta azkenerako, halako galde/erantzun-labirinto batean galduta amaituko genuke, Minotauro beldurgarriarekin topo egin arte.

Oharra.- Litekeena da Minotaurok idaztearen arrazoia oso ondo sinbolizatzea: munstro ikaragarri bat labirinto itzel batean, eta zu bertan galduta (beharbada Minotauro bezain galduta); izan ere, harekin topo egitea hilgarria izan badaiteke ere, topaketa saihesteko irrikari ezin baitio idazleak –mito-bilatzaileak– inolaz ere ihes egin.

- 1.- Zergatik idazten duzu?
- 2.- Idaztea noraino da librea?
- 3.- Zein autore/obra d(it)uzu gogokoen?

1.- Zergatik idazten duzu?

Honako galdera honi erantzutea erraza bezain korapilatsua da, azken finean beti aurki daiteke “epe laburrera” kontent utziko gaituen erantzun bat edo beste. Baina, finean, eta “transzendenteegiak” jartzeko asmorik izan gabe, galdera hori “zergatik bizi garen” galderarekin ere lot genezake, biak elkarrekin lotu alegia. Zergatik? Bai bata bai bestea **ekintza ez-arrazionalak** direlako. Bizitza ez-arrazionala da (guk ez dugu bizitza erabaki, ez ditugu geure bizitzan gertatzen diren gertaerak kontrolatzen, eta gutxi balitz, heriotza bera ere ezin dugu ekidin). Orduan, idaztea existitzearen isla izango balitz, isla horrek bere jatorria bezain ez-arrazionala izan behar luke. Eta kasu horretan, ez dago erantzunik. Idatzi egiten dugu, bizi egiten garen bezalaxe, arrazoirik gabe alegia, aldeztu aurretiko plan “sofistikatu” edo “adimentsu” bati jarraitu gabe.

“Barne-bulkada” izena ere eman diezaiokegu idaztearen ekintzari (misterioari), gizaki “akastun” batzuegan sortu den premia ia irrigarriaren ondorioztat ere jo litekeenari... Esaterako, ba al du zentzurik paisaia bat deskribatzeko nekea hartzeak noiz-eta paisaia horri begira gozatzea daukagun, behaketa horren milisegundo bakoitza dastatuz eta, are garrantzitsuagoa dena, paisaia geure azalaren zulo bakoitzean sentituz, gizaki gehienek (jakituria handiz) egin ohi duten moduan?

Horrez gain, paisaia interpretatzen galtzen den guztiaz galde egiteko eskubideaz ere balia gintezke orain, finean ondorioztatzeko-ze, zorte apur batez, ikusten dugunaren laurdena ere kontatzeko gai izango bagina (eta hori, baikorregiak izanik), geure burua pribilegiatutzat jotzeko oso arrazoi onak izango genituzkeela. Beraz, **amarrugabekeria** izango litzateke beste arrazoi on bat mahukak jaso eta idaztearen bide neketsuetan barna ibiltzen hasteko.

Baina... arrazoiak beste egun ere badaude. Bai, urteak 365 egun baditu, orduan 365 arrazoi aurki genitzake zerk demontre bulkatzen gaituen idaztera argitu nahirik. **Banitatea** ere bada arrazoi bat (idazle ona oso urrutira eramango ez duena, bidenabar esanda; ala juxtu alderantziz ote da, eta idazlea zenbat eta hobea, orduan eta banitatea handiagokoa...? zeren, banitaterik txikienaren arrastorik ez duenak zertarako hartuko du ohetik jaikitzeke nekea? are gutxiago, liburu bat idaztekoa? Hitz salomoniko haiek ahaztu gabe: “banitateak ibilarazten du mundua”).

Matematikekin lotutako arrazoiak ere hortxe daude, adibidez, “Idazle batek liburu bat idazten badu, 150.000 ale saltzen baditu eta ale bakoitzeko 8 euro ordaintzen badizkiote, zenbat irabaziko du...? Erantzuna: 1.200.000 euro! Arranopola, horrekin eros daitezke zenbait BMW!” (Noski, arrazoi horrengatik idatziko lukeen idazle diruzalearen truke nik, benetan, baina bi txakur txiki ere ez nituzke emango. Eta gainera, BMWak interesatzen zaizkionak hobe luke beste lanbideren bat aukeratuko balu...). Dena den, gauzak ez dira nahastu behar, esanikoak ez baitu ere esan nahi idazleek egile-eskubideak jasotzeari uko egin behar diotenik. Nolanahi ere, gauza jakina da Fortunaren jainkosa zekena bezain eskuzabala dela; eta apetatsua, oso...

Badago beste arrazoi bat, honako hau moduzkoago, interesgarriagoa, ziur aski bide onean (edo bide onenetako batean) jarriko gaituena: **komunikazioa**. Gizakiok uharteak bezalakoak gara, eta uharteak elkarren artean lotzeko daukagun bide bakarra komunikazioa(k) eraikitzea da, eta komunikazio eraikitzeko bide asko daude, besteak beste, idaztearena. Hau bai arrazoi benazko eta kontuan hartzekoa! “Munduaz dudanez azalduko dizuet, eta zuek munduaz duzuen ideia azalduko didazue”, horra hor helburu dotore bat. Trukaketa hutsa, norbanakoen mundua aberasteko oso fina berau.

Mundua interpretatu beharra ere ez da gutxiesteko arrazoirik, ez horixe. Eta mundua interpretatzea diodanean, hor bi mundu bereiziko nituzke: bata nirea, barruan daramadana, nire barne-mundua alegia; eta bigarrena, kanpoko, nire begiek erakusten didatena. Eta, noski, bi mundu horien arteko interakzioaren ondorioz batasun modura-edo sortzen dena (ziur aski, literarioena; beharbada, literatura den bakarra).

Baina literatura **arte** dela ez da ahaztu behar, eta alde horretatik, **estetikak** betetzen duen zeregina ere gogoan izateko modukoa da, idaztearen arrazoiez ari garenean. Izan ere, estetikaz eta literaturaz ari bagara, erretorikaz hitz egitea dagokigu –estetikara daramaten bideak ugariak direla gogoan edukita beti ere–. Beharrezkoa da, hortaz, idazle bakoitzak bere estetika, bere mintzaira literario propioa garatzea, eta horretarako, beharrezkoa da mintzaira hori “ederra” izatea, berez, eta besterik gabe. Hortaz, literatura arte bilakatzen duten baldintzetako bat beteko badugu, ezinbestekoa zaigu nolabaiteko zirrara estetiko (edertasunarekin lotzen dena) eragingo duen literatura-hizkuntza bat garatzea, kontu guztiz erraza ez dena, zeren idatzi-idatzi... hori edonork egin dezake, baina arte-kategoriatzat jotzeko moduko idazkera-mota bat sortzea... oi, lagunok, hori beste hariko ezpala da!

Lekukotasuna ere arrazoi boteretsua da idaztearen ekintza hobeto ulertzeko orduan. Esan beharra dago, gainera, lekukotasun-mota asko daudela: norberaren lekukotasuna, garai batekoa, gertaera jakin batzuen... Lekukotasuna oso errotuta dagoen sentimendua da; ia-ia premiatzat ere jo liteke, giza hutsalkeria jasaten laguntzen digunez gero. Zenbat alditan ez ote ditugu han-hemen topatu mota honetako esaldiak, batzuetan etxetik oso urrun topatu ere (Txinako murruan, esaterako): “Maritxu hemendik igaro zen”, edo “Mikeltxo hemen izan da”. Leze-txikin azalduko labar-pinturak ere, denboraren poderioz, halako lekukotasun (ez nolana hiko) bat osatzera iritsi dira, nahiz-eta egin zituenaren asmoa ez izan “ospetsua izatea”. Horrek zera esan nahi du, denborak arte-espresio guztiak bilakatzen dituela lekukotasun –ageriko arrazoiengatik gertatzen da hori–. Beraz, lekukotasunaren arrazoia ez da eleberri historikoarekin soilik lotu behar, idazten duenaren unibertso txiki-handiarekin eta haren begiradaren aurrean suertatzen den guztiarekin baizik.

Bestalde, idazteaz ari garenean, adimenaren garapenaz ari gara. Idaztea berez **jarduera intelektual** da. Gizakia intelektorik gabe ez omen da ezer (eta askotan, intelektoduna izanik ere, ezer gutxi izaten da; baina, beno, hori beste kontu bat da –erremediorik gabea, ziur aski–). Nolanahi ere, barruan daramatzagun ahalmen intelektual horiek, adimenari loturiko gaitasun horiek garatzea sentimendu eta bulkada eta premia jatorra da, zilegi da, eta geure bizitzako une jakin batean edo bestean denok sumatu dugun premia horri (idazleek “dei” gisa entzuten bide dutenari) erantzutea bizitzako legetako baten aurrean men-egitetzat jo daiteke. Genetiko delako, alegia. Hortik intelektualei eta bereziki idazleei gizarteak erakutsi ohi dien adeitasuna (aho biko ezpata berau,

mesfidantzak eta bereizkeriak ere eragiten baititu), gizateria aurrerapausoak ematera eta bere burua hobeto ulertzera bultzatzen dituztenez.

Beste faktore bat ere ezin dugu ahaztuta utzi: **amets egin** beharra, alegia. Gizakiok ameslariak gara (batzuk beste batzuk baino ameslariagoak, egia esateko); eta idazleak, zer esanik ez (baita errealismo gordina erretratatzeko bizi direnak ere). Lehen aipatua dut “Banitateak mundua ibilarazten du” esapide salomonikoa; baina orain mahukatik ateratako beste esapide handinahi bat botako dut hordago gisa: “Ametsak mundua ibilarazten dute”. Amets egitea libre izateaz gain, gizakia ezaugarritzen duten beste alderdi horietako bat da. Ametsik gabeko gizakia, ezta lotan ere. Filosofian arrasto sakona du utzi (filosofiaren korrante guztiak ez ote dira amets bat...?); eta zientzian ere ez al dira askotan ametsak lehenik iritsi, eta handik urte (mende) batzuetara amets horien gauzapean, asmakizunak eta lorpenak...? zer dira erlijioak eta agoreroen iragarpenak ametsen ondorioa baina...? eta mistika osoa...? gizateriaren bilakaera bera ere, ez ote da amets kolektibo eta erraldoi baten emaitza izango...?

Idatzi ere egin daiteke ebaditzeko, **ihes egiteko**. Zeri ihes egin? Gauza askori: errealitateari, inguruzten zaigunari, iraganari, orainaldiari, etorkizunari, geure buruari... Mundua zure neurrira egina ez dagoela uste baduzu eta zu munduaren neurrira egokitzeko erabat ezgauza bazara, orduan literaturaren barruan sartzea eta barrutik giltzaz ixtea ez da bat ere aukera makala, benetan. Askok egiten dute, autismo-barianteetako bat ez ote den susmoak banago ere.

2.- Idaztea noraino da librea?

Idazlearen inguruan pertsona guztien inguruan dagoen gauza berbera dago: geruza ikusezin bat, geure pentsaera, geure ekintzak eta geure ustezko ekintza askeak zeharo baldintzatzen dituen. Egia da, gizakiari itxaropen bat ematearren edo (eta horren aurka nik ez dut ezer), erabakiak hartzeko bide horretan agertzen zaizkigun oztopoetako asko bidetik kentzeko gai garela (edo izan gaitzkeela), baina geruza ikusezinaren eragina noraino baldintzatzen gaituen esaterik ez dago. Gizakia anakronikoa da, gizakia izaki interesatua da, eta ez da ahaztu behar bizirik irauteko “tema”k ere gure erabakietako asko baldintza ditzakeela, ustez gizaki libre baten erabakiak zirenak haren azpijoko inkontzienteen barne-amaraunaren emaitza izateraino. Ikuspegi negatiboa al den? Bai, baina, halere, leiho bat zabalik uztea gustatzen zait, azken finean erromantizismoak erakartzen gaitu, deitzen gaitu, eta egia izan ala ez, geure patua erabakitzeko gai garela sinestaraztea hain da gauza atsegina eta pozgarria...!

3.- Zein autore/obra dituzu gogokoen?

Normalean, euskarazko itzulpengintzak eskaintzen dizkigun lanak dira goi-goian jartzen ditudanak, nigan aparteko emozio estetiko-literario sakonenak eragiten dizkidanak. Euskal idazkintza ikusten dut hasierako zerbaiten balego bezala. Gizarte txikia gara, eta txikitaskun hori gure arte-espresioetan (eta batez ere hizkuntzari dagozkionetan) askotan jartzen da agerian, nire iritziz. Euskal literatura oso gorabeheratsua da gainera (argitaletxe berean maila oneko liburuekin batera maila apaleko liburuak aurkitzeak ez dut uste inor larregi harrituko duenik) Halere, beti aipa daiteke idazle bat edo beste; baina literatura niretzat gertaera kolektiboa da, ikuspegi kolektibotik baino ezin da

arnastu eta ulertu eta gozatu. Ez da idazle bat, idazle-kolektibo bat baizik; eta gure garaiko idazle-taldea soilik ere ez da, mendez mende eta herrialdez herrialde idatzizko hitzari heldu dioten idazle guztiek osatutako amaraun erraldoi eta unibertsala baizik. Horregatik, ez dizuet izen bat emango, galdetzea bezalakoa izango bailitzateke: eta gizaterian zer gizon/emakume nahiago dituzu? Denak eta aldi berean bat ere ez. Horra erantzuna, biribila bezain ziorra (niretzat). Denak eta aldi berean inor ez.